




Lan-arriskuen
prebentzioko
**IV OSALAN
SARIA**

**IV PREMIO
OSALAN**

de Prevención de
Riesgos Laborales




OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

ENPLEGU ETA
GIZARTE GAIAK SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES



OSALAN, laneko segurtasunaren, higienearen eta osasunaren alorretan Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eskumen diren ekintzak koordinatzen eta zentralizatzen dituen erakunde da.

Laneko arriskuen prebentzioa konpartituriko erantzukizuna da, eta horren sustapena eta bultzada OSALANek alde batera utzi ezin duen konpromisoa dira. Gure helburu nagusietakoa, jarduera ekonomikoen garapenean parte hartzen duten agente guztiek prebentzioaren kultura barneratzea da, bere egitea, eta, jakina, aplikatzea.

Laneko Arriskuen Prebentziorako IV. OSALAN Sariaren helburua, enpresen kudeaketan prebentzioaren inguruko ezagutzak eta balioak sustatzea eta bultzatzea da. Enpresek eta erakundeek laneko arriskuen prebentzioa beraien prozesuetan sartzeko egiten duten esfortzua onartzea bilatzen da. Jardunbide onen garapenak eta haien ezagutza konpartituak pizgarria izango dute OSALANen Sarian, gure langileek beraien lana egiten duten baldintzak hobetu ahal izateko.

Pilar Collantes

OSALANeko Zuzendari Nagusia – Laneko Segurtasun eta Osasunerako

Euskal Erakunde




OSALANek – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak Laneko Arriskuen Prebentziorako Sarien IV. Edizioa deitu du.

Sariaren helburua, laneko segurtasun eta osasun alorretan jarduera azpimarragarria burutu duten Euskadiko Autonomia Erki-degoko enpresei eta erakundeei aintzatespena erakustea da.

Honako jarduera hauek hartuko dira garrantzitsutzat:

- Soluzio eta berrikuntza eraginkorrak prebentzioaren alorrean, prebentzioa enpresan integratzea eragingo dutenak, jarduketan honako puntu hauek kontuan izanik: antolakuntza, lanaren ezaugarriak eta konplexutasuna, lehengaiak eta ekipamenduak eta langileen osasun egoera.
- Interes handiko eta garrantzia bereziko ikerketak, argitalpenak eta artikuluak, enpresen prebentzio kultura ezartzera bideratuak.
- Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko jarduketa hobeak, laneko baldintza osasungarriak bultzatzen dituztenak edo langileek beraien lana aurrera eramateko orduan duten prebentzio maila handitzera zuzendurikoak.

OSALANek saria jasotzen duten enpresetako prebentzio ordezkariak ere sarituko ditu.





Laneko Arriskuen Prebentziorako IV. OSALAN Saria bi mailatan egongo da egituraturik:

- Enpresa txikiak: 50 langile baino gutxiagokoak.
- Enpresa handiak: 50 langile baino gehiagokoak.

Enpresek aurkeztutako kandidatek beraien prebentzio ordezkarien abala izan beharko dute. Ordezkar horiek gutun bat idatzi beharko dute, eta bertan proposamenaren beren beregiko baliotapena egin beharko da.

Ezin izango dira sarira aurkeztu laneko arriskuen prebentzioarekin erlazionaturiko arauak era larrian edo oso larrian ez betetzeagatik Laneko Agintaritzaren zehapena jaso duten enpresak. Ezin izango dute parte hartu, ezta ere, sexu arrazoiak direla eta bazterkeria eragiteagatik administrazio edo zigor zehapenak jaso dituztenak, ezta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearekin erlazionaturiko zehapenak jaso dituztenak ere.

Laneko Arriskuen Prebentziorako IV. OSALAN Sariaren epai-mahaiak honako irizpide hauen arabera emango du bere epaia:

- Amaitutako ekimenak izatea.
- Izaera bereiztailea eta berriztailea.
- Iraunkortasunari laguntzea.
- Beste enpresa batzuetara transferitzeko gaitasuna izatea.
- Eragina eta denboran iraun ahal izatea.
- Prebentzioa enpresako jardueretan eta mailetan integrazioa.
- Enpresa jardueren koordinazioa.
- Langileen parte hartzea.

Ohorezko aintzatespena denez, sariak ez du inolako zuzkidura ekonomikorik.

Saria hutsik utzi ahal izango da.



Lan-arriskuen
prebentzioko
IV OSALAN
SARIA

IV PREMIO
OSALAN
de Prevención de
Riesgos Laborales

Sariaren oinarriak, behar den dokumentazioaren deskribapena eta kandidaturak aurkezteko inprimaki normalizatuak hemen:

www.osalan.net

Informazio telefonoa:

94 403 21 19 • 94 403 21 87

KANDIDATURAK AURKEZTEKO EPEA:

2010eko urtarrilaren 4a.